

EDIZIOA

Kultura eta Hizkuntza
Politika Saila

DISEINUA ETA MAKETAZIOA


Ainara Azpiazu Aduriz *AXPI*

ILUSTRAZIOAK

Ainara Azpiazu Aduriz *AXPI*

BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNA LANEAN KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN

DEKALOGOIA



Vitoria-Gasteiz, 2023

Guztion artean egunero lan-eremu seguru bat eraiki dezagun aniztasuna errespetatuz eta genero-berdintasuna bultzatuz.

1. Komentario eta txiste matxistek, sexistek, klasistek, kapazitistek, LGTBIfobikoek edo arrazistek ez dute graziarik. Ongi etorri umore adimentsu eta sortzailea!

2. Ez ahaztu bestea entzutea (zentzu guztietan) eta errespetatzea; horrela zurekin izan nahi duen harremana eta gertutasuna hobeto ezagutzeko aukera izango duzu.

3. Agurtzean, lanaren banaketan, lanari/ahotsari balioa emateko orduan eta gainontzeko guztietan sexuaren araberako trataera eta portaera ezberdindua ekin.

4. Ez eman ziurtzat, ez lanean ez inon, heterosexualitatea edo zisgenero identitateak, pertsonak pluralak baikara eta gure aukerak, identitateak, adierazpenak eta gustu sexualak ere bai! Gustuko ditugu norbanakoaren askatasuna eta elkarrenganako errespetuzko harremana.

5. Bizitza pertsonala, zaintzak,afektuak eta etxeko lanak ezinbestekotzat jotzen ditugu: errespetatu zaintzarako ordutegi-murrizketak, amatasunari edo aitatasunari lotutako baimenak, eta abar.

6. Saihestu zure lankideen bizitza pribatuari edo sexualari buruzko zurrumurruak eta epaiketak egitea. Horrelako mezuak jasotzekotan, moztu katea!

7. Batzar atseginak, inklusiboak eta parekideak gustatzen zaizkigu. Horregatik hizkuntza inklusiboa eta ez sexista erabili, ahots guztiei lekua eman eta pertsona guztiak aintzat hartu. Kontuan izan balio sexistak, klasistak, matxistak, arrazistak, edadistak, kapazitistak eta LGTBIfobikoak askotan gure portaeretan modu kontziente edo inkontzientean ateratzen direla. Horiez jabetu eta neutralizatu!

8. Oihuak ez ditugu gogoko; gozotasunez hitz egitea eta eztabaidatzea gustatzen zaigu!

9. Ez egin lankideen alderdi fisikoari eta gorputzari buruzko komentario edo epaiketarik, eta iristen bazaizkizu ez elikatu!

10. Guztion ardura da gure lan-eremua seguru eta eroso egitea; komentario edo portaera desegokien aurrean, kargu hartu eta ez izan konplize!